



DURANGOKO ESPAZIO PUBLIKOETAN ALKOHOLAREN KONTSUMOA ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZARI DAGOKION KONTSULTA PUBLIKOAREN EMAITZEI BURUZKO TXOSTENA

I. SARRERA

Txosten honen helburua da Durangoko Udalak egindako kontsulta publikoan bildutako herritarren iritziak aztertu eta laburbiltzea. Kontsulta hori bide publikoan edari alkoholdunen kontsumoari buruzko Udal Ordenantza egin aurretik egin da, herritarrek udalerriko bizikidetzari, segurtasunari eta jokabide horien erregulazioari buruz duten pertzepzioa, esperientziak eta proposamenak ezagutzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan ezarritakoa aintzat hartuta.

II. METODOLOGIA

Kontsulta publikoa herritarrei zuzendutako galdetegi baten bidez egin da. Bertan, datu soziodemografikoak jaso (adina eta generoa), eta galdera itxi eta irekiak planteatu dira herritarrek kale-edanari buruz duten iritzia eta esperientzia jasotzeko. Guztira **117 pertsonak** parte hartu dute.

III. PARTE-HARTZAILEEN PROFILA

1. Generoaren araberako banaketa

- Emakumezkoak: 66 parte-hartzaile (% **56,41**)
- Gizonezkoak: 50 parte-hartzaile (% **42,73**)
- Beste identitate batzuk/zehaztu gabea: parte-hartzaile 1 (% **1,70**)

Parte-hartzea nahiko orekatua izan da gizon eta emakumeen artean. Hala ere, emakumeak pixka bat gehiago izan dira.

2. Adinaren araberako banaketa

- 30 urtetik beherakoak: 14 pertsona (% **11,96**)
- 30-39 urte: 22 pertsona (% **18,80**)
- 40-49 urte: 30 pertsona (% **25,64**)
- 50-59 urte: 31 pertsona (% **26,49**)
- 60-69 urte: 13 pertsona (% **11,11**)
- 70 urte edo gehiago: 7 pertsona (% **5,98**)



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

Laginak adin-tarte zabala hartzen du, baina parte-hartzaile gehienak 40 eta 60 urte bitartekoak izan dira (guztizkoaren % 52,13).

IV. KONTSULTAREN EMAITZAK

1. Konpondu beharreko arazoak

1.1 Arazo honek eragindako egoera desatsegin edo arriskutsurik bizi izan duzu?

- **Bai:** 32 pertsona (% 27,35)
- **Ez:** 84 pertsona (% 71,79)
- **Erantzunik ez/erantzun gabe:** pertsona 1 (% 1,70)

Datu hauek erakusten dute inkesta bete duten herritar askok edari alkoholduen kontsumoarekin lotutako egoera desatseginen bat bizi izan dutela.

1.2. Erantzuna baiezkoa bada, zehaztu zer arazo nabaritu duzun:

Galdera irekia denez, lortutako erantzunen emaitzak eskematizatu dira, eta honako hauek dira gehien errepikatzen direnak:

1. Zarata eta zikinkeria:

Kexa hau da erantzunetan gehien agertzen dena. Galdera honetan 85 erantzun jaso dira. Horietatik 52k (% 60 baino gehiago) esan dute zarata- eta zikinkeria-arazoak jasan izan dituztela, bide publikoan edari alkoholduen kontsumo orokortua dagoen eremuetan.

2. Borrokak, segurtasunik ezaren sentsazioa:

Aurreko erantzuna bezain orokorra ez bada ere, 19 erantzun jaso dira (erantzun guztien % 22). Hauek adierazi dute ez direla seguru sentitzen alkohola edaten dutenen albotik igarotzean, lekuz kanpoko iruzkinak egiten dizkietelako edo borrokak gertatzen direlako, batzuetan mozkoortuta daudenen artean, eta beste batzuetan edaten ari diren pertsonen eta aldamenetik pasatzen diren oinezkoen artean.

3. Kalteak / bandalismoa:

Gehien errepikatzen den hirugarren arazoa bandalismoa edo mozkorrek eragindako kalteak dira. Honelako 6 erantzun jaso dira (erantzun guztien % 7, gutxi gorabehera), eta aitortu dute alkohol-kontsumoarekin lotutako kalteak jasan dituztela (horietako 4 beraien ibilgailuetan eta beste bi atarietan).



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

Aho batez uste da bide publikoan alkoholdun edariak modu arautu gabea kontsumitzeak gizalegearen aurkako beste jokabide batzuk eragiten dituela, gainerako herritarrei atseden hartzea eragotzi eta segurtasun-arazoak eragiten dituztenak.

Herritarren adostasun horrek agerian uzten du Durangoko kaleetan alkoholaren kontsumoa arautzeko eta kontrolatzeko beharra dagoela.

1.3. Zure ustez, Durangoko zein gunek behar du zaintza handiagoa?

Jasotako 113 erantzunetatik, herritarrek arazo gehien honako bi eremu hauetan ikusten dituzte: alde batetik, Andra Mari eta alde zaharra (56 erantzun jaso dira, % 50), eta bestetik, San Frantziskoko atzealdea, "Matute" plazatxoa deritzona (erantzunen % 25 inguru). Gainerako erantzunak Barandiaran (3 erantzun), Plateruena (3 erantzun) eta beste eremu batzuen artean banatu dira.

1.4. Zein arazo zehatz ikusi duzu Durangon bide publikoan alkohola kontsumitzearekin lotuta?

Galdera honetan 1.2 galderan jasotako emaitzen antzekoak jaso ditugu. Emaitzetan aipatu diren arazo nagusiak dagoeneko aztertutakoak dira: zarata eta zikinkeria, borrokak, bandalismoa eta herritarren arteko segurtasun falta.

2. Ordenantza onartzeko beharra eta aukera.

Zure ustez beharrezkoa al da Udalak bide publikoko alkohol-kontsumoa arautzea?

- **Bai:** 101 pertsona (% 86,32)
- **Ez:** 12 pertsona (% 10,25)
- **Erantzunik ez:** 4 pertsona (% 3,41)

Parte-hartzaileen gehiengo handi bati beharrezkoa iruditzen zaio Udalak zuzenean bide publikoan edari alkoholdunen kontsumoa arautzea, baimendutako guneetatik kanpo. Beraz, garrantzitsua deritzote alkoholaren kontsumoa eta erregulazio horren ondoriozko zehapen arauetara buruzko irizpide argiak ezartzen dituen arau-esparru espezifiko bat garatzea. Izan ere, erantzunetan udal-agintariei eskatzen zaie "lege eta ordenantza berriak" sortzeko, "alkohola kontsumitzen duten pertsonak zehatzeko" eta arauak betetzen ez dituztenak "zigortzeko".

Ordenantza bat beharrezkoa EZ dela erantzun dutenek esan dute komenigarria litzatekeela kontzientziaziorako prebentzio-neurriak ezartzea, batez ere gazteei zuzenduta, horren ondorioz sor daitezkeen gizarte- eta osasun-arazoak saihesteko.

3. Ordenantzaren helburuak

Zure ustez, zer beste helburu izan beharko lituzke ordenantza honek?

Parte-hartzaileek proposatutako helburu eta neurrien artean, honako hauek daude, gehien errepikatu denetik gutxien errepikatu denera ordenatuta:

1. Presentzia poliziala areagotzea, herritarren eskubideak babestu, zehapenak aplikatu eta araudia betearazteko.

Behin eta berriz errepikatu da arazoari konponbidea emateko eta onartzen den Ordenantza betearazteko beharra dagoela. Honako iruzkin hauek jaso dira, besteak beste: "isunak jartzea", "ordenantza aplikatzea", "zaintza eta isun gehiago jartzea", "ordena publikoa", ordena eta segurtasuna".

2. Gazteen artean kontzientziazio handiagoa sortzea

Era honetako iruzkin asko jaso ditugu: "Lehenik eta behin, kontzientziatu; gero, isuna jarri", "hezitzailea", "ondorioen inguruan kontzientziatu" edo "edari alkoholdunen inguruko kontzientziazioa".

3. Herritarren arteko bizikidetza sustatzea

Askotan aipatu da bide publikoan edaten duen jendearen eta gainerako herritar eta bizilagunen artean bizikidetza baketsua egon daitekeela.

4. Lasaitasun eta garbitasun gehiago

Aurreko puntuari lotuta, hobeto deskantsatzea eta kaleak garbiago egotea lortu nahi da.

4. Aukera erregulatzaileak

Zer beste neurri proposatuko zenituzke egoera hobetzeko?

Galdera irekia denez, lortutako erantzunen emaitzak eskematizatu dira, gehien errepikatzen denetik gutxien errepikatzen denera ordenatuta:

Zehapen aplikagarriak dituen ordenantza argia ezartzea eskatu da (77 erantzunetatik 19k zuzeneko zehapenaren alde egin dute, hau da, ia % 25ak)



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

- Isunak lehenengo arau-haustetik.
Zorroztasuna eskatu dute, autoekin gertatzen den bezala: abisurik gabe, zuzeneko zehapena.
- Indarrean dagoen araudia eraginkortasunez aplikatzea.
Askok esan dute arauak badaudela, baina ez direla betetzen.

Herriaren kanpoaldean gazteentzako aisialdi-eremuak sortzea (% 9)

Kontzientziazio- eta bizikidetza-kanpainak (erantzunen % 6,49)

- Sentsibilizazio-kanpainak.
- Betetze-mailari eta bilakaerari buruzko txosten publikoak.
- Errespetuari buruzko kontzientziazioa (askotan errepikatua).

Komun eramangarri eta hondakin-edukiontzia gehiago jartzea gunen kaltetuenetan (% 3,89)

5. Ondorioak

Kontsulta publikoari esker, bide publikoan edari alkoholdunak kontsumitzearen inguruko herritarren iritzia bildu ahal izan dira (asmoa ez zen herriko terrazen inguruan eztabaidatzea).

Erantzunen bidez, argi eta garbi identifikatu dira herritarren kezka nagusiak: zaratak, zikinkeria, borrokak eta gizalege falta, batez ere mozkorrengatik.

Era berean, Udalak bide publikoan alkoholaren kontsumoa arautzeko udal-ordenantza egin behar duela adostu da. Parte-hartzaile gehienek ustez, erregulazio horrek bizikidetza hobetzen eta espazio publikoko segurtasuna bermatzen lagun dezake. Bereziki azpimarratu dute bidegabeak eta ausartegiak diren jokabideak zehatzeko beharra.

Kontsulta honek, ordenantza egiteko babesaz gain, araudia, hirigintza eta hezkuntza hobetzeko proposamen zehatzak jasotzeko balio izan du. Besteak beste, honako hauek nabarmendu dira: kontzientziazio-kanpainak, presentzia poliziala indartzea eta zehapenak jartzea.

Oro har, kontsulta honekin herritarren iritzia jasotzeko helburua bete da, eta informazio baliagarria lortu da udalerraren beharretara egokitutako eta herritarrek adierazitako eskaerekin bat datorren tokiko araudia egiteko.

Durango, 2025eko ekainaren 25ean

